

## Euskal AEko Merkataritza sektoreko salmentak % 0,2 igo dira 2024ko bigarren hiruhilekoan


**Aurreko hiruhilekoaren aldean, salmenten igoera % 0,4 izan da**

Eustaten datuen arabera, *Merkataritza* sektoreak (*Handizkako merkataritza*, *Txikizkako merkataritza* eta *Motordun ibilgailuen salmenta eta konponketa* barne hartzen ditu) % 0,2 egin du gora 2024ko bigarren hiruhilekoan, prezio konstanteetan eta egutegiari lotutako ondorioak kenduta.

Aurreko hiruhilekoaren aldean, dagozkion urtaro-eraginak kenduta, salmentak % 0,4 hazi dira 2024ko bigarren hiruhilekoan.

### ≡ Merkataritzako indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)

Jaiegunen eraginetatik zuzendua. Prezio finkoak



Iturria: Eustat. Merkataritza indizea

*Merkataritza* sektorearen barruan, salmenten urte arteko bilakaera positiboa izan da *Motordun ibilgailuen salmenta eta konponketan* eta *Txikizkako merkataritzan*, % 15,8ko eta % 0,9ko hazkundeekin, hurrenez hurren. *Handizkako merkataritzan*, aldiz, salmentak % 2,5 murriztu dira; hori guztia prezio konstanteetan eta egutegiari lotutako ondorioak kendu ondoren.

Aurreko hiruhilekoaren aldean, urtaroei lotutako eragina kenduta, % 1,6 igo da *Motordun ibilgailuen salmenta eta konponketa*, % 0,1 *Handizkako merkataritza* eta % 0,2 *Txikizkako merkataritza*.

## Euskal AEko merkataritza-indizea.Urte arteko eta hilabete arteko aldakuntza-tasak (p). 2024/II

|                                                       | Prezio finkoak |             |                 |
|-------------------------------------------------------|----------------|-------------|-----------------|
|                                                       | t / t-4        | t / t-1     | A (t) / A (t-4) |
| <b>INDIZE OROKORRA sektorearen arabera</b>            | <b>0,2</b>     | <b>0,4</b>  | <b>-0,7</b>     |
| Ibilgailu motordunen salmenta eta konponketa          | 15,8           | 1,6         | 15,2            |
| Handizkako merkataritza                               | -2,5           | 0,1         | -4,0            |
| Txikizkako merkataritza                               | 0,9            | 0,2         | 1,2             |
| <b>INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera</b> |                |             |                 |
| Araba/Álava                                           | -1,2           | 0,1         | -2,4            |
| Bizkaia                                               | 0,1            | 0,4         | -0,8            |
| Gipuzkoa                                              | 1,0            | 0,6         | 0,4             |
| <b>ENPLEGU-INDIZEA</b>                                | <b>1,6</b>     | <b>-0,3</b> | <b>2,2</b>      |
| Euskal AE                                             |                |             |                 |

(p)Behinbehineko datuak

t / t-4 Urteen arteko aldakuntza. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhileko arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak

A(t) / A(t-4) Urteen arteko aldakuntza urte honetan zehar. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

Data 2024ko Irailaren 16a

Iturria: Eustat. Merkataritza-indizea

Arabako lurralde historikoak emaitza negatiboak izan ditu salmentetan, urte arteko datuetan, prezio konstanteetan, %1,2ko atzerakadarekin. Bizkaian eta Gipuzkoan, aldiz, salmentak % 0,1 eta % 1,0 igo dira, hurrenez hurren, 2023ko bigarren hiruhilekoaren aldean.

2024ko lehen hiruhilekoaren aldean, salmentak % 0,1 handitu dira Araban, % 0,4 Bizkaian eta % 0,6 Gipuzkoan.

Euskal AEko *Merkataritza* sektoreko landunen indizea % 1,6 igo da 2024ko bigarren hiruhilekoan, 2023ko bigarren hiruhilekoaren aldean. 2024ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta, berriz, % 0,3ko beherakada izan da.

### INFORMAZIO-OHARRA

*Merkataritza-indizearen* erreferentzia-urtea berritzeari ekin zaio, eta 2021. urtea izango da indizearen oinarri berria. Oinarri-aldaketaren prozesuak metodologia sakonki eguneratzea ekarri du, eta, besteak beste, baliozkotzeko eta egozteko metodoak berrikusi dira eta azterketan kontuan hartu beharreko biztanleria doitu da. Horrek guztiak indizearen serieak eguneratzea ekarri du.

Urte arteko aldakuntzak egutegi-efektuen serie zuzenduetatik eta hiru hilabete arteko aldaketetatik abiatuta kalkulatu dira, urtaro-eraginik gabeko serieak oinarri hartuta.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Haiei esker, hiruhileko honetako indizea laginaren **% 97,56ko estaldurarekin** kalkulatu da.

---

**Informazio gehiago nahi izanez gero:**

*Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística*

*Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz*

*Prensa-zerbitzua: [servicioprensa@eustat.eus](mailto:servicioprensa@eustat.eus) Tel.: 945 01 75 62*